

# KURIK *kurikan*

**H**emeroteka madarikatuak! Ez daude politikoak bakarrik izorratzeko, gu ere euren atzaparren artean jausi gara. Aurreko zenbakian esan genuen hurrengo Kurikean zoriona izango zela nagusi, egutegian gorri agertzen diren egunez hitz egingo genuela, ez dakit zer eta badakit zer baina gizakiak proposatu arren deabruak erabakitzen du. Esan genuen baita (ere) hurrengo zenbakia udazkenean aterako genuela. Saiatu, saiatu gara baina Gabonetan eta ozta-ozta.

Kurik zer den, haren helburuak etab. dagoeneko ezagunak izan beharko lirateke, beraz, gatozen harira. Ez dago zertan esan artikulu guztiak bikainak direla, zein baino zein interesgarriagoa etab.

Juan Manu Ugartetxearekin hasiko gara bi artikularekin dator eta. Ziklope-lana benetan Nicolas Arteita kapitainaren gainean egin duena. Zuok uler dezazuen, desertuan ura edo lastategian orratza aurkitzea errazagoa da. Oraindik Iñigo kapitainaren semea barik anaia dela idazten da! Bigarren lana pertsonalagoa da, amuma Maritxu Salinasen memoriak aspaldi batu zituen eta zuok irakurtzeko egokitu eta prestatu ditu.

Arteita familiari buruzko beste artikulu bat dakarkizuegu Borja Aguinagalde Euskadiko Artxibo Historikoko zuzendariak idatzia. Eskarmentu eta ospe handiko historialaria, lagundu eta glamour apur bat gehitu nahi izan dio aldizkariari.

Beterano batekin jarraituko dugu. **Iñaki** Irigoienek omenaldia merezi du bizitza osoa daramalako euskal kultura ikertzen eta sustatzen. Aspaldi entzun genion erretiratzeko sasoi heldu zitzaioela baina artikulu hau egiteko adorea ateratu du. Gustura irakurriko duzue emakumeen aurrekuari buruz idatzi duena. Jaiekin zerikusituta duten artikulekin jarraitu eta -laster- amaituko dugu. Fernando Garateak oraingoan musika bandaren historia dakarkigu: **SOL, FA, FA, MI, RE, DO, SI, TXIS, PUN...** Musika, maisu! Juan Luis Isasiren artikuluari ere ez zaio zaratarik falta, turuta eta bonbo hotsa sasoi batean. Abarketa kuadrillakoek 50 urtez nola bizi izan duten antzar eguna jakingo dugu. Amaitzeko Pau Blanch kataluniarrak buruhandiei (Doña Tomasa, Don Terentzio...) buruzko lantxo bat idatzi digu. Koittadua artxibora hurbildu zen... Kontuz ibil zaitezte artxibora hurbiltzen zaretenok!

Zalaparta utzi eta lasaitasunera bueltatuko gara. Derioko Eliz artxiboko teknikaria den Cristina Castillok, oraingoan bere kide Izaskun Cortazarrekin batera, ezkontzak ikertu ditu. Elizako kontuekin etorri zaigu, bueltatu hobe, **Iñaki** Madariaga ere Lekeitioko guruztokiekin. Bi nahiko ez eta -jesuiten besoa zein luzea den!-, hirugarren **Iñakik**, Goioanak, omenalditxo bat eskaini die Kuriktarrantzat idatzi zuten eta bizitza hobera pasa-

tu ziren Celina Ribechini eta Mikel Arizaletari. Baita Aralde liburu-dendari ere.

Gazi-gozoa da 1961eko galarrena eta Aita Guriaren salbazioa. Anton Abaroa mutil txikiak nagusi egin zenean idatzi zituen memoriak dira. Gazi baino gozoago Ameriketara joan zirenen kontuak, *Ameriketara joan nintzan zentimorik gabe handik etorri nintzan maitia bost milioen jabe...* baina Ameriketara be txakurrak ortozik! Koldo San Sebastianek idatzi du artikuluak. Luzeegia zela-eta laburtu egin behar izan dugu.

Iturbek sagar lapurretan Ingalaterrara joan behar izan du, baina zer demontre!, hirueleduna izango da laugarren eta azken zenbaki hau. Horrez gain, aspaldi gida arkitektonikoa egitea sartu zitzaion buruan eta ez da gelditu lortu arte. Hona da berau!

Arteak, zelan ez, bere lekutxo du. Mexicotik etorri zen Diego Rivera, Mexicotik dator Ordorika. Gu *slow city* eta eurak *ahorita mismo*, piramideak arinago eraiki ziren! Artea ote dira grafitiak? Banksy egindakoak, antza, bai. Baina kobazuloak "zikindu" zituztenak artistak ote ziren? Denboraren igarotzeak dena hobetzen du: penak arintzen omen ditu, objektu zaharrak antigoaleko, hau da baliotsu, bihurtzen ditu eta grafitiak..., grafitiak arte beharbada ez baina ondare behintzat bihurtzen ditu. Bada horretan ibili dira Iñaki Libano eta Sergio Vega inguruko kobazuloetako grafitiak aztertzen. Irakurle leialek soberan ezagutzen dute aurtengo artista gonbidatua. Dagoeneko Jon Zubiaurren marrazki bikainak ezagutzen dituzue baina argazki arloa ere lantzen du Lekeitioko naturazale honek. Izurdeak, baleak, koplak, kalatxoriak... -antzarak falta- haren argazki-makinak eta pazientziak harrapatuak. Horrez gain betiko atalak landu ditugu: Editoriala, Kuriken sermoia inoiz baino motxagoa (haserre dugu), Batean bale... Aurtun, berriz, sekulako atsekabez Etahalaizanbazan barik gatoz, *zeingotsauba*.

Jakina, eskerrik beroenak artikuluak idatzi dituzten guztiei, marrazkilaria Jon Zubiaurri, zuzentzaileei, Maite Garamendiri Lekeitioko artxibozainari, liburua maketatu duten Kinukakoei, Lekeitioko Udalari (*txin txin txin diruaren hotsa...*) eta orokorrean azken urte hauetan aldizkari hau argitaratzea posible egin duten guztiei, bereziki, ondra eta ohorea kolokan jarritz, azala diseinatu zigun ondarrutarrari.



## Besterik ezean

Batzuetan, besterik ezean, beharrezana bertute bihurtzea erabakirik egokiena izaten da. Bakarra, gainera. Aurtengo Kurikak oztopo asko gaitu behar izan ditu: inoiz baino beranduago ibili gara, ezinean, atezuan, artikulu batzuk azken momentuan heldu zaizkigu, gainera asko gaztelaniaz idatzia, Gabonak gainean... Gaztelaniaz idatzitakoak jatorrizko bertsioan mantentzea erabaki dugu originala hobetuko duen itzultzaile oraindik jaio ez delako eta bide batez dirua aurreratuko dugulako. Orain arte euskara erabili dugu ia artikulu guztietan, Kurik 3a euskara hutsean argitaratu zen baina sei itzulpen zituen. Baina kontuz, ez gaitzean itzulpenaren gaiarekin nahastu. Zuhaitzek ez dute basoa ikusten uzten. Arazo larria dugu historia eta euskaldunok gure arloan behintzat. Gutxi ikertzen da (Lekeition dinosauroak gelditzen gara) eta ikertzen den apurra ez da euskaraz idazten. Nork ipiniko dio katuari kaskabiloa?

KATUOK ERPE ETA GEHIAGO

Koittadua, koittadua  
amaittu dira jaiak Lekitxokuak.

Pozarren nengoen, jai faltan, behintzat Kurik 4 alai izango genuelakoan eta hiru, lau askoz jota, dira parranden gaineko artikuluak. Kobid madarikatuak lur jota utzi du mundu guztia. Ai gaztea izatea zer den!, 1596ko izurria ezagutu izan bazenute..., hura bai pandemia. Lehengo egunean enteratu nintzen pan-demia / mundu-gaixotasuna zela eta demia demos-etik, hau da, herri hitzetik datorrela. Ez nago batere ados, osasun onekoak ez gara herritarrak ala? Eta zelan izango da pan mundua, inoiz egon da ogirik gizadi guztiarentzat ala? Barkatu egidazue digresioa, filologi kontuok maite ditut. Tira, harira, eta ez harrira, banekien nik zuri hauek ez zutela askorik pairatuko eta badakit artikuluak moztuko didatela, neuri, Kurikeko izarrari, horregatik ganoraz agurtu nahi zaituztet. Irakurle maiteok, ondo segi, gitxi gasta eta bueltak amari.

